

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 203. alea. 2012ko uztaila

Santixauetan murgiltzeko prest!



Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da
Konfiantza eta bermea, gure lanaren gidari

4 x 4



Kamioiak



Tallerra

- 40 urte baino gehiagoko esperientzia dugu ibilgailuen osagaien erreparazioan.
- Gure bezeroen tailerretan jasotzen ditugu piezak, erreparatu ondoren berriz eurei eramateko.



Gure instalazioetan, enpresen ibilgailuak egokitasunez jaso eta kudeatzeko aukera dugu

Deitu edo etorri
eta galdetu

Kalitate-prezio erlazio bikaina

gure produktu eta zerbitzuetan



**AUTO-REPARACIONES
AREITIO, S.L.** **Etab.**

634 errepide nazionala,- 69,5 km.a, Areitio Gaina 15. 48269 - Mallabia

Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15

www.areitiomotor.com / administracion@areitiomotor.com / areitio@areitiootor.com



UGARRO

AHOLKULARITZA FISKALA,
JURIDIKOA
ETA KONTABILITATEKOA



Mutua General de Seguros

Fernando Orbe. ekonomista
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27
177 postakutxa

ugaro@ugaro.com / forbe@ugaro.com

943 17 43 44
Faxa. 943 17 54 58

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone
Amesti, Ibaia Azagirre,
Estibalitz González,
Asier Ibaibariaga, Ane
Saénz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIO**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Santos Vega

LAGUNTZAILEAK:

Leire Elustondo,
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López, Pello Mugarza,
Valentin Mugarza,
Izara Rivas eta Iker Zaitegi.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González,
Asier Ibaibariaga,
Aiert Izagirre, Lotxo taldea,
Valentin Mugarza,
Izara Rivas, Ane Saénz,
Udal Liburutegia
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Andrea Díez, Nora Mateos
eta Olatz Loiola.

TIRADA:

2.300 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

ENARA, golondrina común. *Hirundo rustica*



Beste ernara motetatik desberdintzeko, bekoki eta samako luma gorriari erreparatu behar. Jende zalea eta gure artean estimatua, habia ahal dela jendetik gertu atonduko du eta etengabeko joan-etorrian ibiliko da. Katuak dira bere areriorik zorrotzenak. Orientatzeko duen dohaiari esker, urtero egingo du osteratxoa aurreko udaberrian arrautzak ipinitako baserriko atari, korta edo ganbara zuloko habira; lehenbestean ez badu topatzen, ez du berriro erabiliko, nahiz eta instintuz bada ere, bertara bueltatuko den hurrengo urteetan.

Hegaztirik trebeenetakoa da, hegan doala, euli eta eltxoak harrapatzeko eta aidezko buelta ikusgarriak egiten ditu haien ondorik; horretarako ezinbesteko du bere urkila formadun buztana, bolante legez erabiltzen duena akrobaziotan.

Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO4 DJ Txanprax	ERMUAN ZER?17 Lotxo taldea
ELKARRIZKETA:5-7 Aiert Izagirre	IRITZIA18 Txosnek Ermuan itxaron beharko dute
MALLABIAN ZER?8-9 Mallabitarrak emakumeen triatloian	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN.....10-15 Lobianoko garbiketa-taldea	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
SANTIXAUAK11-14	KALEKO INKESTA21 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
BOTEPRONOAN.....16 Maite Urrosolo	AGENDA22 Abuztuko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Oier Pérez 'Txanprax'

Musika elektronikoa eta perkusio afrikarra nahasten ditu 34 urteko DJ ermuar honek. Cádizeko 'chill out' batean udako ilusentziak girotzea da bere azken erronka.

- Noiz ekin zenion musikari?

Txikitatik gustukoa izan dut, gitarra eta bateria, batez ere, eta 12 urterekin gitarra erosi nuen. Nire lehen taldea 'Be quiet' izan zen eta hardcore melodikoa egiten genuen. Jarraian, Storbai-sek fitxatu ninduen baxua jotzeko.

- Eta nola heldu zen perkusio afrikarra zure bizitzara?

Nire neskalagunak Afrikako perkusio tradizionala gustukoa nuela zekien eta 'djembe' bat oparitu zidan duela 15 urte inguru. Erritmo horrek segituan harra-patu ninduen. Urtean birritan Huescara joaten hasi nintzen, perkusio tailerretara eta bat-batean, hemengo lana utzi eta Afrika eta Holandara joan nintzen.

- Momentu hartan musika estilo horretan murgildu zinen?

Ez, horren ostean izan zen. Madrilen 6 urte pasa nituen eta bertan dagoen kulturen arteko nahasketa aprobetxatuz, perkusioko maisuak ezagutzen hasi nintzen, Kassoun Sanogo kasurako.



- Txalaparta ere jotzen duzu?

Bai, eta perkusio afrikarrarekin alderatzen dut txalaparta, biak oso antzina-koak direlako. Gaur egun biak uztartzen dituzten proiektuak badaude, OrekaTx eta Adabegi Kuku Preskue, esaterako.

- Zer da zuretzat musika?

Arrazakeriarik eta aurreiritzirik gabeko kulturen arteko nahasketa bermatuko duen hazia.

- Azken urteotan talderen batean ibili zara?

Bai, nire bakarkako saioak egiteaz gain (Txitxarron, Imagen, Pagoan eta NewGuass-en, besteak beste), hainbat taldeko kide eta sortzaile izan naiz. Madrilen musika elektronikoa eta zuzeneko musika tresnak uztartzen zituen proiektu batean egon nintzen, L.S.D.n

(listen, see and dance). Fusio ikaragarria sortzen genuen! Senegaletik Ermura etorritako Jibril Thiorrekin eta Bubarekin Batu taldea egin nuen. Dantzariak ere bazeuden eta Gorka Angulok txalaparta jotzen zuen nirekin batera. Oso talde polita zen, baina orain etentxo egin behar izan dugu. Eibarko Gorka Baskarenekin Mgiám taldea egin nuen eta runba eta funkya jotzen genuen.

- Zer egiten duzu musikaz gain?

%100era babesten nauen familia eta umetxoak daukat eta horrez gain, 'Tratamientos térmicos Sarasketa'ko zuzendaritza komertzialaren ardura daukat. Musikari gisa lan egin nahiko nuke, baina oso bizitza ezegonkorra da. Hala ere, badakit denbora gutxi barru nire bizitzako aukera helduko dela.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



Aiert Izagirre, bodybuilding:

“Muskuluak izateagatik edozer gauza egiteko gai naizela uste du jendeak”

Aiert Izagirre 25 urteko ermuarra da. Gorputz eta kirol-ekintzen animazioa ikasi du eta bost urte daramatza Jator Kiroldegian lan egiten. Spinning klaseak ematen ditu eta kiroldegiko monitorea da.

Horrez gain, Kulturismo Klasikoa praktikatzen du eta aurten hainbat lehiaketatan izan da garaile.

Ermuar bakarra da kirol modalitate hau praktikatzen duena.

e|k|a|r|r|i|z|k|e|t|a

- Nondik datorkizu afizio hau? Noiz hasi zinen kirol hau praktikatzen?

Duela 9 urte entrenatzen hasi nintzen Ermuko Kirolegian, orduan oso argal nengoen eta nire gorputzari forma eman nahi nion. Bertako begiraleak, Belenek, asko irakatsi zidan eta afizionatu egin nintzen. Gero aldizkariak irakurtzen hasi nintzen, eta ordutik hona ez diot entrenatzeari utzi!

- Kirol hau ez da oso eza-guna. Zure ustez zergatik?


Oso jende gutxik praktikatzen du. Oso sakrifikatua delako esango nuke, kulturista izan nahi duenak eguneko 24 orduetan izan behar du.

- Urte hauetan zure muskulua hazi diren beste hazi da zure indarra?

Nik uste dut neurrian hazi direla; hala ere, indar gehiago edukitzea gustatuko litzaidake. Bestalde, indarra batez ere nik entrenatzen ditudan mugimenduetan daukat, gainontzekoetan indar normala dut. Jendeak uste du muskulua izateagatik edozer gauza egiteko gai naizela, baina ez da horrela.

- Zerbait hartzen duzue gorputza eta muskulua hazteko?

Bai, gehigarri asko hartzen dugu gure gorputzari forma emateko: proteinak, glutamina, multibitaminiko mineralak, lipotropikoak, omega 3, 6, eta 9, babesle



artikularrak... horiek gabe gorputz hau lortzea ezinezkoa izango litzateke.

- Jende askok uste du kirol hau ez dela osasuntsua. Zer esango zenieke?

Arrazoa dutela. Gure gorputzak muturrera eramaten ditugu. Lehiaketa garaian gorputzeko gantz kopurua %4 inguruan egotea komeni da. Hidratazioa ere muturrera murrizten dugu azala muskuluetara itsasteko. Kirol profesional guztiak bezala ez da osasuntsua baina lehiatu gabe praktikatzeak ez du inolako arriskurik.

- Adin mugarik badago kirol hau praktikatzeo? Umeek ere praktika dezakete?

Ez, izan ere 70 urtetik gorako kategoriak badaude.

Baina umeek ezin dute praktikatzen, lehenengo gorputza ondoren 16-17 urte inguru dituztenean gorputzari forma ematen has daitezke, pisuak hartuz eta ariketa fisikoa eginez.

- Zenbat denbora eskaintzen diozu egunean zure gorputza lantzeari?

Eguneko 24 orduak. Hala ere, pisuak altxatzen ordu bete eta erdi inguru ematen dut egunean eta astean bi ordu spinning egiten dut. Gainontzeko denbora elikadurari eskaintzen diot.

- Elikadurak garrantzi handia du kulturistarengan?

Bai, ezinbesteko da. Bi ordu jaten dut, eta gauze ere maiztasun hori mantentzen dut. Beraz bi ordu esnatu beharra dut jateko. Bi dieta mota jarraitzen ditut: denboralditik kanpo egiten dudana eta lehiaketa garaikoa. Denboralditik kanpo karbohidrato asko jaten dut

pisua hartzeko (arroza, patatak, pasta, oloa...). Lehiaketetan aldiz, karbohidratoak murriztu eta proteinak hartzen ditut batez ere. Karbohidratoak murriztea garrantzitsua da muskulua hobeto definitzeko.

- Elikaduraz asko dakizu...

Bai, orain gainera kirol dietetika eta nutrizioa ikasten ari naiz, urrutiko ikastaro bat da.

- Zure ogibidea lagungarri izango zaizu.

Bai, kirol hau oso zaila da praktikatzea beste lan mota bat baldin badaukazu. Zaila izango litzateke nire elikadura ohitura mantentzea 8 orduko lan arrunt batean bi ordu jaten egon behar dudalako eta denbora asko behar delako janak prestatzen.

- Muskulu sendoak izateaz gain, muskulu horiek erakusten ere ikasi beharra dago, posturak... nork irakatsi dizu? Zaila da postura horiek lortzea?

“Bi orduro jaten dut eta, gauze ere, bi orduro esnatu beharra daukat jateko”

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Ez dit inork irakatsi, bideak ikusten ikasi dut eta ondo ikasi dudala uste dut! Ez da zaila postura horiek egitea baina oso neketsua da tentsioan eta geldi egon behar duzulako denbora lu-

zez. Ohikoa izaten da karripanak eta gihar-mina izatea.

- Egia da ondo ikasi duzula! Horren adierazle da lehiaketetan lortu dituzun emaitzak. Noiz hasi zinen lehiatzen?

2011an egin nuen lehenengoz, hasiberrien kategorian egin nuen eta garaile izan nintzen Hego Euskal Herriko lehiaketan. Aurten Bodybuilding Classic lehiaketan lehiatu dut eta hor ere irabazi. Horrez gain, Donostiako Open International lehiaketa irabazi dut eta duela hilabete eskas Galizian Norte de España lehiaketa irabazi nuen.



- Bide arrakastatsua benetan! Jarraitzeko asmorik badaukazu?

Bai, azaroan Espainiako lehiaketan parte hartuko dut Santa Susanan (Katalunian). Bestalde, datorren urteari begira 88 kilotik 91 kilora pasatzea espero dut, Kulturismo mailan aritu ahal izateko.

- Zeren arabera dira kategoriak?

Altuera eta pisua hartzen dira kontuan kategoriak bereizteko.

- Gorputz beltzaranak ikusten ditugu horrelako lehiaketetan. Zer dela eta? Zer erabiltzen duzue?

Tindagaia da erabiltzen duguna azal beltzaranan lortzeko eta gainetik spray bat erabiltzen dugu distira emateko gure giharrei. Argiekin hobeto ikus daitezten egiten da.

- Profesional moduan bizi daiteke lehiaketetan parte hartuz?

Espainian ez, nahiz eta lehiaketa batzuetan diru-sariak ematen diren. Estatu Batuetan badago aukera gehiago nahiz eta oso zaila den han ere. Onenek bakarrik lortzen dute horretaz bizitzea, gainontzekoek entrenadore pertsonal moduan eta kiroldegietako lanekin konbinatzen dute zaletasuna.

Ane Saénz

AIERT IZAGIRRE

- Nola hartu zuen familiarak zure zaletasuna?

Hasieran ez zuten ulertzen mundu hau, baina pixkanaka - pixkanaka ohitzen joan dira ni pozik ikusten nautelako. Asko animatzen naute orain.

- Garestia da dieta hori jarraitzea?

Oso garestia. Galdetu nire gurasoei!

- Zure neurriko arropak topatzeko arazoak dituzu?

Bueno... pixkatxo bat. Baina gehiago loditzen naizenean arazoak edukiko ditut.

- Bikotekide kulturista-rik izango zenuke?

Bai izango nuke, baina orain ez da nire planetan sartzen bikotekiderik izatea, pozik nago nagoen moduan.

- Beste zaletasunik?

Futbola, aupa Athletic!, zinea...

- Santixauetarako planik?

24ean aterako naiz, baina gainerako egunetan lasai-lasai ibiliko naiz.

- Oporretan zer?

Hemen Ermuan, herria zaintzen, aurreztu behar dut.

Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak
 Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

optika itZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44
 48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41

Descubrete

· Teak eta kafeak.
 · Belgiako txokolatea.
 · Eguneko tea dastagarri
 · Osagarriak: teontziak, katiluak, infusoreak....

Oparitzeko neurria egindako poltsak!

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

Leire Uribelarrea, Itsaso Pradera eta Izaskun Zurikarai: “Ez euen lehiarik, eta gure artien animatzen giñen”

Lanbidez Leire irakaslie, Itsaso kiroldagiko teknikarixe eta Izaskun Gorputz Heziketako irakaslie. Hirurek, San Juan bezperan, Donostiako emakumien triatloien parte hartu eben.

- Zer dala eta animatu zineten triatloien parte hartzera?

Leire: Igez lagun baten bittartez euki neban proba honen barri. Hasiera baten zalantzak euki nittun ia gai izengo nintzen egitteko, baina halan da be, animau nintzen.

Itsaso: Nik Leiren bittartez jakin neban, da berak animau nindun: egitteko eta egitteko... eta azkenien parte hartzera berotu nintzen.

Izaskun: Nik Leire aitzian bitartez jakin neban parte hartzekotan ebizela. Holako zozer egitteko gogue neuken, eta probie baiño bi egun lehenago emon neban izena.

- Guztire zenbat emakume arritu zineten?

132 lagunek emon gendun izena, hortik 117k egin eta amaittu gendun; ez zan inor erretirau.

- Zer ezaugarriko triatloie zan?

Itsosuen 300 metro egin genduzen igerixen. Honen ostien 8 kilometro bizikletan, eta azkenik korrika 2 kilometro.

- Aurretik holakoren bat egin dozue?

Leire eta Itsaso: Ez

Izaskun: Triatloirik ez neuken egindde, baiña banakako probetan, korrika, igeriketa edo bizikletaketan aritutekue naz.

- Triatloirako zelan entrenatu zarie?

Le: Nire gabezia handixena igeriketie izen da; hori dala

eta piszinara asko juen naz eta itsosuen 3tan arittu naz.

It: Nik neuk ez dot aparteko ezer egin, batzutan piszinan ibilli naz eta itsosure entrenatzera behin juen nintzen.

Iz: Egixe esan, nik ez dot ezer egin. Berez be, korrika eta bizikletan asko ibiltten naz eta.

- Probatatik zer egin jatzue gatzena?

Le: Igerixen egittie izen zan niretzako gogorrrena. Bizikletie laga eta korrikan hastien, hainkak kargaute igerri nittun.

Iz: Nitzako be bai. Tranziziño hori egin jatan gogorra,

bizikletie laga eta korrika egitterako kanbixue. Behin korrika erritmue hartu ostien, ondo jarraitu neban.

It: Nik lehenengotik argi neuken korrika egittie egingo jatana zaillena; eta holantxik izen zan. Niri be bizikletie laga eta korrikan hastie gatxa egin jatan.

- Esperientzie zelan baloratzen dozue?

Iz: Nitzako oso ona. Ondo egitteko modukue.

It: Positibue, oso ondo. Momentu txarrak euki nittuen, baiña amaittutekuen ahaztu egitten die.

Le: Oso ona eta oso positibue. Nik sekule kiroliet ez



Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

dotela egin, pozik amaittu neban. Proba hau aukera ona da emakumiok holakuek be egitteko gai gaiela ikusteko.

- **Parte hartzaillien artien zelako girue egon zan?**

Hirurek: Kriston giro ona! Ez euen lehiarik, eta gure artien animatzen ginen. Oso giro politte euen.

Le: Adibide bat emotiarren, nire kasuen, lehenengo bi probetan beste emakume bat eta ni, alkarren atzian arittu giñen, azkenerako bizikletie laga ostien, korrika batera egin, da alkarraz amaittu gendun!

- **Jentie egon zan zuek animatzen?**

Bai, familixakuek baitte mallabitarrak be han egon zien. Benetan be, eskertzen da jentie animatzen eukitzie. Eskerrik asko dano!

- **Errepikatuko zintuten?**

It: Bai, egon zan anbertia-gattik eta aurten nire burue ondo ikusi dotelako.



SAILKAPENA:

Izaskun:

59 (43 m eta 32 sg)

Itsaso:

79 (45 m eta 26 sg)

Leire:

110 (52 m eta 51 sg)

Iz: Ni animauko nintzeke, beti be proben distantziak mantentzen badie, disfrutatzeko egitten dot eta!

Le: Nik momentuz baietz esaten dot. Igerixen gehixau entrenau biherko nintzake, baña zergaittik ez!

Hirurek: Hemendik, datorren urterako, Mallabiko neskek parte hartzera gonbidatzen dittugu!

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre



MALLABIKO BERRI LABURRAK

MALLABITARRAK TXAPELDUN

Ekainan 22xen Bilboko Miribillako trinketien jokatu zan Euskadiko Emakumezkoen Paleta Argentinarreko Trinkete Txapelketie. Bertan, Itsaso Praderak, Gaxi Gallastegirekin batera, nagusien modalidadien, txapela lortu eben hernaniarren aurka. Jubeniletan barriz, Amaia Araiztegi, Olatz Arrizabalagarekin batera azpitxapeldun suertatu zan.

Itsaso eta Amaiak uztailaren 7xen Mungian Euskadiko One Wall Txapelketie jokatu eben. Goizez, banakako modalidadien Amaiak Itsason aurka irabazi eban. Arratsaldien, barriz, binaka, Amaia eta Gaxik Itsaso eta Leire Etxanizen aurka jokatu eben. Kasu honetan bigarren bikotie izen zan txapeldun. Zorionak neskek!

MALLABIKO UMIEK UDALEKUETAN

Ekainaren 25ien hasi eta lau astez udalekuez gozatu ahal izen dabe Mallabiko 42 umek. Sei begiraleren laguntzaz, astelehenetik eguenera bitartien, ekintza desberdin askotan parte hartzeko aukerie euki dabe honek umiok. Frontoien, liburutegi zaharrien eta Zurrutokixen era askotako eskulan, jolas eta lanak egin dabez, bestiek beste, abalorixuekin kokodrilue, zorrino postalak, paperezko lorak, Mihiluzera jolastu... Berrizko pisinetara be juen zien hiru egunetan, eta horrez gain, Urkiolara egun guztiko irteera bat be egin eben. Hemen, txikitxuenak Urkiolako parketik ibili zien, eta nagusixek, Polpolera igo zien.

TENIS TXAPELKETA

Mallabiko futbito taldiek antolatzen dituen ekintza guztixen artien, Tenis txapelketa jokatu barri da. Bertan 12 tenistak parte hartu eben guztire, eta azkenien, Eibarko Ruben Pinillos gailendu jakon bi setetan (7-6,6-2) Javier Castillo zaldibartarrari.

* **ANDRA MARI JAIXEK, 22. ORRIAN** →

MUGA **AGONIA**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MALLABIKO
Herriko
taberna

Eguneko platera (3€)
menua, bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

EUSKAL PREGO
ETA IHESLARIA

ETXERA

943 174 952
(asteartetan itxita)

IZOTZ
IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1

943 17 60 52

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goenkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

ARANTZA TOTORIKAK IRABAZI DU AZKEN EROSKETA-TXEKEA



Aurtengo Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina ekainaren 30ean bukatu zen. VI. edizio honetako azken irabazlea Arantza Totorika izan da eta trukean 30 euroko erosketa-txekea jaso du.

VII. FOLKEZ BLAI LEHIAKETAKO FINALISTAK

Cuarteto Ombú (Madril), Tazzuf (Bartzelona), Amanida Folk (Bartzelona), Taray (Murtzia), Kherau (Bizkaia) eta Keltiar Aldea (Nafarroa) arituko dira aurtengo Folkez Blaioko finalean. Guztira 33 taldek eman dute izena lehiaketan eta irabazleek 3.000 eta 1.500 euro irabaziko dituzte, Orbe Kardinalaren plazan burutuko den finalean (irailaren 14, 15 eta 16an). Udaleko Kultura Saila eta Ermuko folk musika taldeak dira antolatzaileak.

Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere.

Estrategikoa, bai, oinarrizko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jardura ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotox dakigu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeko: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatuz, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Inbertitzeko garaia. Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru laguntza politika aldatu eta hitzarmen ereduia ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publizitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideak pisu handiagoa izan dezatela.


Horren berri eman diegu erakundeei (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horietan sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla guztiontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

Elkarlanerako deia. Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berriz ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeei. Danon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok beharrean jarraituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko informazioa eskaintzeko. Erakundeei dei egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau eginda beharrezko baliabideekin horni dezagun.



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)



D. ARRAL 97 S.L.

Tfn. 943 176 075 - Fax: 943 170 892

arral@arral97.com

www.arral97.com

Ardo banatzailea:

Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxes 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



Ondo pasa Santixauetan!!

UZTAILAREN 24a, ASTEARTEA

- **17.00:** Patxi plazan, Drogomenpeketasunaren Prebentzioko Udal Zerbitzuak MEZUA DUTEN BETAURREKOEN BANAKETA egingo du.
- **19.00:** 'Irulitxa' musika-bandak alaituriko TXARANGEN AURKEZPENA eta ohiko KALEJIRA herriko kaleetan zehar.

- **22.00:** MUSIKA JAIALDIA Valdespina parkean: A.D., Komando Antilimako, Los Hermanos, Javierski DJa eta Khris Rios DJa.
- **23.00:** DANTZALDIA Orbe Kardinalaren plazan Nueva Alaska orkestrarekin.

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak
-eramateko prestatzen dugu-

Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.
Zapato, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527

75 urte
artisansu
gozogintzan

Muruamendiaraz.
GOZODENDA

- Kafetegia EGUNERO zabalik.
- Artisansu-produktuak EGUNERO EGITEN DITUGU.
- AUKERA ZABALA pastel, tarta eta opiletan (kontsultatu katalogoa)
- Etkez-etxeke banaketa ERMUA ETA MALLABIAN (martitzenetik domekara)

Enkarguak:
943 176 803 DIPUTAZIO KALEA z/g · (Ohiko Jose Mari gozotegia)



UZTAILAREN 25a, ASTEAZKENA

- **4.00-6.00:** Nueva Alaska orkestrak GAUPASA girotuko du.
- **7.00:** TXOKOLATE-JANA plazan.
- **7:30:** Plazako pilotalekuan BARRUS partidak izango dira.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **12.00-14.00** eta **17.00-20.00:** UMEENTZAKO PARKEA San Pelaion.
- **12.00:** Santiago Apostoluaren elizan MEZA izango da patroia- ren omenez.
- **12.30:** HERRI-KIROLAK plazan. HARRIJASOTZAILEAK: Goenatxo II, Iñaki Perurena eta Jesús Urrutia 'Delioso'. AIZKOLARIAK: Bihurri eta Zelai II. IPARRALDEKO JOKOK: Zelailuze. GAZTEEN ARTEKO TXAPELKETA: Zelai III, Zelai IV, Bihurri II eta Ureta.
- **12.30:** Samasiku txarangaren eskutik KALEJIRA.
- **16.00:** San Pelaioko Bolatokian BOLO-PALMAko SANTIXAUAK 2011 SARIA.



- **17.00:** Aritzmendi pilotalekuan PROFESIONALEN ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK: Jaunarena-Larrinaga / Eskurdia-L. Galarza Xala-Laskurain / Titín II-Merino II.
- **19.00:** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA Ondalan konpartsaren eskutik.
- **20.00:** LARRAINDANTZA herrikoia Orbe Kardinalaren plazan.
- **20.30:** Orbe Kardinalaren plazan EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA.
- **22.00:** MUSIKA JAIALDIA parkean: Mal abuso, The New Moshky's band, Nuestro deber, Fey DJa eta David Mk DJa.
- **22.30:** Elegants taldeak 'Cabaret Elegance' KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaio plazan.
- **23.00:** Orbe Kardinalaren plazan Diamante Show orkestraren DANTZALDIA.





UZTAILAREN 26a, OSTEKUNA

- **7.00:** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7.30:** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **12.00-14.00** eta **17.00-20.00:** HAURRENTZAKO PARKEA San Pelaioko plazan.
- **12.00:** NAGUSIEI OMENALDIA egingo zaie eta SARIAK entregatuko zaizkie Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
- **12.30:** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, ERMUAN KANTUAN KALEJIRARI emango zaio hasiera.
- **13.00:** Alboka Musika Eskolako Bandak KONTZERTUA eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **14.00:** Aritzmeni Pilotalekuan Nagusien Etxeak HERRI BAZKARIA eskainiko die aiton-amona bazkideei.
- **18.00:** ESKU-PILOTA partidak izango dira Orbe Kardinalaren plazan:
Elordi / Calleja
Azpiri-Landaburu / Etxebarria-Aldape



- **19.00:** ERMUAN KANTUAN KALEJIRA plazan hasita.
- **19.00:** Patxin eta Potxinek PAILAZO IKUSKIZUNA eskainiko du plazan.
- **19.00:** KALEJIRA Irulitxa musika-bandak alaituta.
- **19.00:** KALEJIRA Ermuko txarangen eskutik.
- **20.00:** LARRAINDANTZA Orbe Kardinalaren plazan.
- **22.00:** MUSIKA JAIALDIA parkean: Deriva, Basaki, Black Redding, Alexander M. DJa eta Diego González DJa.
- **22.30:** Markeliñe taldeak 'Anomalías magnéticas' KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaioko plazan.
- **23.00:** Bazter Orkestrak DANTZALDIA alaituko du Orbe Kardinalaren plazan.



MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)




ASTARLOAN
**GOXO
GOXO**
Kafé & Deliss

Tfo.: 943174612


**Menua, kaxolak,
razioak, pintxoak...
Plater konbinatuak
4€ tik aurrera!**
6:30ean zabaltzen dugu!
**Tel. 943 17 15 57
ERMUA**



P. Flores



UZTAILAREN 27a, OSTIRALA

- **7.00:** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7.30:** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **10.00-11.30:** Arroz banaketa egingo da plazan eta ondoren PAELLA LEHIAKETARI ekingo zaio, haur eta helduen kategorietan.
- **11.00:** Valdespinako Markesaren parkean SARDINA BANAKETA nahi duen guztiarentzat.
- **12.00-14.00** eta **17.00-20.00:** UMEENTZAKO PARKEA San Pelaion.
- **12.30:** Rustic Arlanzon bandaren KALEJIRA.
- **14.00:** Paella lehiaketara aurkeztutako platerak DASTATUKO dira. Ondoren, ohiko HERRI BAZKARIA.

- **18.00:** ERROMERIA Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.
- **19.00:** KALEJIRA 'El despiste' txarangaren eskutik.
- **19.00:** Paella lehiaketaren SARI-BANAKETA egingo da plazan.
- **19.15:** Orbe Kardinalaren plazan AURRESKU ETA LARRAINDANTZA nahi duen guztiarentzat.
- **20.00:** ERROMERIA Lotxo taldeak alaituta.
- **23.30:** Irulitxa musika-bandaren ONGI ETORRIA Orbe Kardinalaren plazan.
- **00.00:** SUZIRIAK Ongaraiko parkean. Ondoren KALEJIRA Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien AGUR JAUNAK.
- **00.30:** JAIEN AMAIERA: Karina abeslariak kontzertua eskainiko du plazan.



Lobianoko garbiketa-taldeak Lantegi Batuak-eko argazkilaritza saria irabazi du



Desan Jabonero ermuarrak koordinatzen duen garbiketa-taldeak irabazi du Lantegi Batuak-ek antolatu duen argazkilaritza lehiaketa. Irabazi asmorik gabeko entitate honetako langileak dira 6 lagun hauek eta egunero Torreta, Udal Liburutegia eta Lobianoren garbiketaz arduratzen dira. Lantegi Batuak-ek 32 langile ditu Ermuan, 15 gizon eta 17 emakume, eta horietatik 30ek urritasunen bat daukate. Bost taldetan banatuta, herriko eraikin publiko guztien garbiketa kudeatzen dute (kiroldegia izan ezik), tartean eskolak, merkaturia eta Valdespinako parkinga. Enpresa pribatuei dagokienez, Tenneco Automotive-ren garbiketa ere euren esku dago. Lantegi Batuak-eko zuzendari nagusia den Txema Franco duela egun gutxi egon zen Lobianoko lan-taldearekin eta bertan adierazi zuenez, *“urritasunen bat duten pertsonen alde-*

ko apustua egin zuen lehen Udala Ermukoa izan zen, garbiketa zerbitzuei dagokienez, duela ia 25 urte”. Pausu horrek beste herri batzuetara joateko bidea zabaldu ziela azaldu zuen eta asko zor diotela Ermuko Udalari. *“Orokorrean, urritasuna duten pertsonen enpleguekiko sentsibilizatuen dagoen Bizkaiko eskualdea Durangaldea da”*, azpimarratu zuen.

Ermua Innova taldeak lanean dihardu



“Esperientzia, adin, eta gaitasun desberdinetako pertsonen osatutako taldea gara”. Horrela aurkezten du bere burua Ermua Innova taldeak. Aurtengo martxoan hasi ziren lanean eta abendura bitartean ‘learning by doing’ filosofia garatuko dute, eginez ikasi, alegia. Ermuko Udala eta Mondragon Unibertsitatearen laguntza jasotzen du talde honek. Izarra Centreraren biltzen dira ia egunero eta enpresa-proiektu berriak sortzeko beharrezkoak dituzten erremintak, tailerrak eta ‘couching’ saioak eskaintzen dizkiete, euren

beharren arabera. Programa horren helburua enpresa proiektu berritzaileei ekitea da, baina eginez ikasten denez, lehen proiektua burutu dute Ermua Innova taldekoek: euren logoa duten kamisetak saldu eta erosketa txekeak zozketatu.

Eskerrik asko San Juan suan parte hartu zenutenoi!



Euskal Birusa elkarteak eskerrak eman nahi dizkie San Juan sua egunean plazara bertaratu ziren ermuar guztiei. Elkarteak emandako jarraibideei kasu eginez, ez zen papeirik sutara bota eta errespetuz jokatu zen momentu oro. Irrintzi lehiaketari dagokionez, 12 umek hartu zuten parte eta irabazleak Julen Pérez (25 euroko erosketa-txekea) eta Alazne Goikoetxea (15 euroko txekea) izan ziren.

‘BELDUR BARIK’ LEHIAKETAN IZENA EMAN DAITEKE JADA

‘Hamaika jarrera, hamaika aukera’ izenburupean abiatu da aurtengo Beldur Barik lehiaketa. 12 eta 26 urte bitarteko gazteek euren ikus-entzunezko lanak aurkeztu ahal izango dituzte eta sariak 300 eta 1.000€ artekoak izango dira (izena emateko epea urriaren 31n bukatuko da). Gazteen artean indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko xedez sortu zen programa hau 2009an, Eudelek bultzatuta eta berdintasunaren aldeko euskal udalen ‘Berdinsarea’ sarearen ekimenez.

220 TXIRRINDULARI DEBABARRENEKO IV BTT MARTXAN

Euriak eta lokatzak aurtengo ibilbidea are gogorragoa egin zuen arren, Debegeak antolatutako BTT martxan 220 lagunek parte hartu zuten uztailearen 1ean. Lasterketa bukatutakoan elkarrekin bazkaltzeko aukera izan zuten parte hartzaileek.

APFE-K BETIONDON JOKATUKO DU

Irailetik aurrera herriko Futbol Afizionatuen elkartearen partidak Betiondoko futbol zelaian jokatu dira larunbat eta igandetan. Udalarekin desadostasunak zirela eta, Zaldibarren jokatu izan dute herriko futbolariak azken urteotan. Irailean hasiko den denboraldi berrian 11 talde lehiatuko dira, iaz baino bi gehiago.

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGVAK 943 030 299**

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxa. 943 17 04 14

MAITE URROSOLO

- Umetako oroitzapenik?

Oso garai zoriontsuak izan ziren, oroitzapen ona daukat.

- Eibar...

Azken urteotan apenas daukat harremanik Eibarrekin. Ni ere oso gazte nintzela joan nintzen, nire gurasoak ere Donostiara joan ziren bizi izatera, nire umetako lagunak ere jada ez dira han bizi... aldentzen joan naiz pixkanaka.

- Zer izan nahi zenuen nagusitzean?

Nik ballet-eko dantzari izan nahi nuen baina ikasketak egiteko Madrilera joatea zen aukera bakarra eta garai haietan ez zen erreza. 14 urte nituen, aukeratu beharra neukan eta pelukeria eta estetika ikastea erabaki nuen.

- Oso gazte hasi zinen lanean...

Zarautzen 3 urte eman nituen barnetegi batean. Ikasketak amaitu ostean, ile-apaindegi batean hasi nintzen eta ondoren nire gaur egungo senarraren anaiaren ile-apaindegian. Han ezagutu genuen elkar senarra eta biok.

- Zein da bikotea hainbeste urtez mantentzeko sekretua?

Batik bat pazientzia izatea eta bakoitzak dituen bertuteak eta akatsak onartzea.

- Zure lanbidearen alde onena eta txarrena?

Okena, egunero sormena lantzen dugula eta txarrena ordutegia.

- Lanetik kanpo zer duzu gustuko?

Paseatzea eta Pilates egiteko tartea hartzea.



Eibarren jaioa baina aspalditik Ermuan bizi da. 3 neba-arreben artean gazteena. 2 alabaren ama. Oso gazte zela, nahiz eta ballet-a izan bere zaletasun nagusi, pelukeria eta estetika ikasketekin hasi eta bere lanbide bilakatu zen. 35 urte daramatza bere senar eta koinatuarekin batera Paris ile-apaindegian.

- Akatsen bat?

Gauzak zuzen esaten ditudala, zeharka ibili gabe.

- Zure bizitzako une bat?

Nire 2 alaben jaiotza.

- Egin gabe daukazun hori...

Euskara ikastea. Nire 2 alabak oso txikiak zirenean euskaltegian ibili nintzen. Arantza hori daukat.

- Udara badator...

Eguzkia eta hondartza izugarri gustatzen zaizkit. Poza eta bizitzeko grina areagotzen didate.

- Bizitzeko lekua...

Ermuan oso gustura nago baina Donostia izugarri gustatzen zait. Han bizi nahiko nuke.

- Musika...

Duela gutxi Bruce Springsteenentzuten kontzertuan izan ginene eta asko gozatu nuen. Aute, Serrat eta Sabina ere oso gustuko ditut.

- Bizitzak zer irakatsi dizu?

Daukagunarekin konforme egon behar dugula. Sarritan ez dugu baloratzen daukagun hori ere.

- Ospea, fama...

Ez nau erakartzen. Jende famatua ikusten dudanean ez zait autografo bat eskatzea bururatzen. Naturalagoa naiz.

- Jende gutxiak jakingo du Antxon Urrosolo telebistako aurkezle eta ekoizlea zure neba dela...

Betidanik oso era naturalean bizi izan dugu bere ibilbidea. Arreba bezala pozik nago egin duen ibilbideagatik eta egon den leku guztietan jarraipena egin diogu.

- Jateko plater bat...

Barazki menestra

- Krisia...

Egunerokoan asko nabaritzen da. Horrez gain, azkeneko 3 hilabeteotan 3 ile-apaindegi berri ireki dira Ermuan eta eskaintza asko zabaldu da. Lehia gogorra da.

- Badatoz Santixauak...

Azken urteotan bezperan lagunekin afaldu eta gainerako egunetan alde egiten dugu lasaitasun bila.

- Emakumea gaur eguneko gizartean nola ikusten duzu?

Gauza askotan aurrera egin bada ere, bada kezkatzen nauen kontu bat: gaur egungo bikote gazteengan ikusten ditudan zenbait jarrerara atzerakoi. Batik bat mutilengan.

- Animalia bat bazina...

Pantera edo lehoiabarra.

- Bidaia bat...

Erroma, Venecia, Florencia...

- Zer falta zaio Ermuari?

Aire libreko igerileku batzuk eta trafikoa gutxitzea.

Asier Ibaibarriaga

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

PRODUCTOS
SELECTOS

URDAITEGIA - CHARCUTERIA

MAYTE

Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

Lotxo taldea:

“Zezen Eguneko erromerian dagoen bizitasuna berezia da”

Idoia eta Amaia Legorburu ahizpek eta Isi Arrizabalagak osatzen dute lurretako Lotxo taldea. 1993. urtean ekarri zituzten Ermura euren rantxerak, kalejirak eta abesti herrikoiak estreinakoz eta ordutik hona, 19 urtetan kale egin barik, dantzan ipini dituzte ermuarrak uztailearen 27an.



- *Ermuan egin zenituzten lehen erromeriak gogoan dituzue?*

Bai, lehen urteetan ohol-tza txiki batean jotzen genuen, plazako eskaileren ondoan. Gero, Titanik tabernaren aurrean ipintzen zen beste ohol-tza jotzen hasi ginen. Gaur egungo kioskoa egin zenetik, bertan jotzen dugu.

- *Zerbaitek bereizten ditu Zezen Eguneko erromeria horiek?*

Bai, guretzat oso bereziak dira. Herriko jendea jai giroan murgilduta dago goizean goizetik, elkarrekin bazkaltzen dute, koadrilarekin, eta gu jotzen hasten garenerako ‘berotuta’ daude. Hori ona da guretzat, oso ona!

- *Bestelako loturarik baduzue herriarekin?*

Ez. Aita musikaria genuen eta ahizpa biak txiki-txikitatik bizi izan dugu musika etxean. 15 urterekin jotzen hasi ginen eta nik (Idoia) 22 urterekin jo nuen lehen aldiz Zezen Egunean. Gainera, Ermuko BBKn 11 urte eman nituen eta ermuar dezente ezagutzen ditut.

- *Gainontzeko herrietan ere horren konpromiso sendoak dituzue?*

Ez, baina egia da urteroterero 6 edo 8 leku finkotan jotzen dugula. Busturialdeko Paresi auzoan, esaterako, azken 22 urteotan jo izan dugu.

- *Zenbat erromeria egiten dituzue urtean?*

Ez da erreza esatea! Maia-tzetik irailera bitartean jotzen dugu batez ere, asteburuetan, baina kopurua aldatzen joaten da. Azken urteetan gure jokabidea ere aldatu egin da. Lehen larunbatero jotzen genuen, ezkontzetan eta afari herrikoietan, esaterako. Zetorren guztiari baietz esaten genion. Duela 12 bat urte, berriz, umeak direla-eta, emanaldiak aukeratzen hasi ginen.

- *Zaila da lana, etxeko beharrak eta taldea aurrera eramatea?*

Garai batzuetan konplikatua izan da, batez ere umeak txikiak zirenean. Baina guk musika jotzen jarraitu nahi dugu, txikitatik barrubarruan daramagun zerbaitlelako, eta zerbaitez gustu-

koa duzunean, nola edo hala konpondu egiten zara.

- *Erromeria bizirik dago oraindik ere?*

Gaur egungo erromeriak ez dauka zerikusirik duela 20 urtekoarekin. Gu Egan taldea ikustera joaten ginen txikitari eta garai horretan ez zegoen tabernetara joateko horrenbesteko ohiturarik. Jaia plazan egiten zen, txosna txiki batekin akaso. Orain jendeak ez ditu 2 ordu plazan ematen, erromerian. Herri txikietan beharbada bai, baina Ermua bezalako herri handietan lagun batzuk finkoak dira (jende nagusia, batez ere) eta gainontzekoak txandaka dituzu: heldu, dantza pare bat egin eta euren martxa jarraitzen dute.

Dorleta Vidal

“Lehen larunbatero jotzen genuen, orain aukeraketa egiten dugu”

Ferreteria/Burdindegi

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulak

ANBOTO

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Txosnek Ermuan itxaron beharko dute

Pasa den ekainaren 29ko Osoko Bilkuran, Ermuan Txosnak izateko itxaron beharko dugula erabaki zuten. Ermuan aspaldidanik eta belaunaldi askoren -gazte zein nagusiren- nahia den Txosna gunea izateko aukera inoiz baino gertuago euki genuen.

Urte hasieratik ilusioz ekin gion Ermuko herriak daukan hutsune hau betetzeko lan zintzoari. Elkarriketak sukaldeko lan moduan planteatu genituen PSOEk eta Bilduk. Denbora aurrera joan ahala pausoak txikiak eta aldi berean sendoak zirelakoan geunden. Ordenantza baten beharra mahaigaineratu bazen ere, baimen batekin aurrera egiteko aukera suertatu zen. Sukaldeko lanetan, plater desberdinei buruz hitz egiten, truke baten sartuta

geunden sentsazioa gailentzen ari zitzaigun. Ekainean barrena geundenean, ordenantzaren beharra ezinbestekoa zen PSOEn esanetan. Oztopoz jositako ordenantzaren erredakzioa Osoko Bilkuratik aste batera burutu zen. Desilusia nagusi eta erreakzionatzeko denborarik gabe, Osoko Bilkuran gure kontrako jarrera azaltzea besterik ez zitzaigun geratzen.

Lanketa garden honen guztia- ren jarraipena egin zuten herriko gazte asko Osoko Bilkurara hurbildu ziren beraien iritzi konstruktiboa azaltzera. Seguro askoren lehen agerraldia herria eraiki behar den eskenatokira. Alkateak, ordea, bere diskurtso iraingarriaren ongietorria egin zien: mesprezua, iraina alde batera eta bestera, duela urte asko entzuten



Iker Zaitegi

ez genizkionak, aretoan geunden guztion harridura, haserrea eta egonezina irabaziz. Gazteek, aldiz, sekulako lasaitasun eta heldutasun lezioa eman zuten, txosnei buruz hitz egiteko zeudela han, ez inor hiltzeko. Ordenantza onartu egin zen eta aurrean ez du inork txosnarik jarriko. Politikaren paradojak edo hobe esanda politikarienenak. Txosnarik ez baina lan egiten jarraitzeko ilusioa inoiz baino sendoagoa da, geroa, gazteena delako. Aupa zuek!

Desilusia nagusi ... gure kontrako jarrera azaltzea besterik ez zitzaigun geratzen

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Enter
INFORMÁTICA

SALMINTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es



Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
*Geure Baserrian
Hazitako Txalak*

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

KLASEAK

Alemaneko klaseak ematen dira. Metodo atsegina eta adin guztietarako.
© 670793312. Leire.



Uztailaren 12an
Lur gure sorgintxoak urtetxo bat bete du. Patxo potolo bat danon partez.



Uztailaren 9an
Zorionak Mikel zure 9. urtebetetzean. Ondo pasa eta mila musu etxeko guztien partez.



Uztailaren 15ean
Zorionak! Muxu asko etxekoan partez.



Uztailaren 26an
Zorionak Manex zure 7. urtebetetzean!! Ondo pasa oporretan eta musu handi bat etxeko eta kalekoan partez!

LANA

Mutila eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko eta edozein lan egiteko.
© 648143804



Abuztuaren 2an
Zorionak Beñat; Hamma, Maier eta familia osoaren partez.



Uztailaren 28an
Zorionak bikote, neskatila batzuk eginak zaudete!! Ondo pasa familia guztiaren partez.



Uztailaren 22an
Zorionak Josu; Itziar, Libe eta Iratiren partez.

Hurrengo zenbakirako azken eguna:
IRAILAREN 16A



Uztailaren 23an
Zorionak Unai zure 4 urtebetetzean, musu handi bat amatxo eta maite zaitugun guztion partez!!



Uztailaren 17an
Zorionak Jaime!! Ondo pasa zure egunean, Eliren partez. Musu handi bat!!

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA




Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

MALLABIA 1979

Argazki hau 1979ko uztailaren 7an aterata dago Itziarren, M^a Jesus Aranburu eta Juan Luis Araiztegiren ezkontza egunean. Bertan agertzen dira, ezkerretik eskuinera eta goitik behera:

Inoncencio Aranburu, Jose Onaindia, Eugenio Aranburu, Esteban Astarloa, Isidora Astarloa, Felisa Astarloa, Juan Ozerinzajauregi, Julia Sarasua, Candida Aranburu, Doroteo Milikua, Juanita Aranburu, Dominga Landa, Bittori Aranburu, Bixenta Astarloa, M^a Jesus

Aranburu, Juan Luis Araiztegi, Maria Aranburu, Lina Ugarte-Mendikoetxea, Jose Astarloa, Jose Mari Arriaga, Bonifacia Solozabal, Elio Cuevas, Jose Arriaga, Aitor Cuevas, Bixenta Arriaga, Pako Aranburu, Karmen Biain, Angeles Arriaga, Agustin Jaio, M^a Nieves Arriaga, Ignacio Astarloa, eta Maribi Arriaga.



ERMUA 1952



'Linea Saco' modan jarritako emakumeen soineko ganorabako zabal batzuk ziren eta Zezen egunerako horrela jantzita ibili ziren paseoan Zubiaurren lagun koadrila honetakoak. Dena aldatzen doalako, egun hori ordutik hona ere aldatuz joan da, bere ezaugarri esanguratsuenak mantenduz: aureskua, soka-muturra, sardina erreak, bailableak plazan eta koadrila jai-giroa. Noiztik Zezenen egun hori? Laster 100 urte egin behar dutenen esanetan "Bizi guztian!"

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Ermuko tren geltoki berriaren lehen harria uztailaren 2an ipini zen. Bi urte eta erdi iraungo dute obrek eta horiei esker, geltoki berria eraiki, sarbideak hobetu eta egungo trazatua aldatuko duen tunela egingo da. Guztira 24,4 milioi euro inbertituko dira.

Proiektuaren berri baduzu? Aukeran, zein proiektu lehenetsiko zenuke herrian?

Bai, nire aitak proiektuaren berri eman zidan. Nire ustez tren geltoki berriaren eraikuntza ez da beharrezkoa, dagoen bezala ondo dagoelako, eta gainera kostu handia duelako. Saihesbidea, ordea, beharrezkoa da Ermuan pilotzen diren auto-ilarak saihesteko.



Ivan Luengo. 22 urte



Nire lana dela eta, egitasmoaren berri izan dut. Beharbada, geltokia berriztatzea ez da beharrezkoa, baina tunela eta 'mangoa' egitea beharrezkotzat jotzen dut, tren ez baita Gipuzkoa etorbideko eta Sallabenteko etxeen ondolik pasatuko. Saihesbidea lehenetsiko nuke, kontaminazioa eta zarata gutxituko direlako, herritar guztion bizi baldintzak hobetuz.

Ainhoa Lasuen. 44 urte

Trean egunero bidaiatzen dut eta geltokian dauden kartel batzuen bitartez eduki nuen proiektuaren berri. Berrikuntza egitea egokia da, baina nik lehentasuna saihsbideari ematen diot, sortzen den trafikoa ahalik eta azkarren desagerraraztea beharrezkoa delako.



Encarni Toledo. 50 urte



Bai, trean ibiltzen naizenez egunero ikusten ditut obrak eta jendearekin berria komentatu izan dut. Tren geltokia berriztatu behar denez beharrezkotzat jotzen dut. Dena den, saihsbidea lehenetsiko nuke egunero gure herritik pasatzen den trafikoarekin amaitzeko.

Nagore Izagirre. 31 urte

Bai, lagun batek proiektuaren berri eman zidan. Egitasmoa beharrezkoa da Gipuzkoa etorbideko bizilagunak faboratuko garelako. Duda barik saihsbidea lehenetsiko nuke, gure herriari eta inguruko herriei mesede egingo diolako; poluzioa, trafikoa eta kutsadura akustikoa urrituz.



Isaac Vaquero. 24 urte



Ez dut proiektu horren berri izan. Tren geltokia hobetzea ondo egongo litzateke, hala ere, lehentasuna saihsbideari emango nioke. Trafikoa gutxitzea tren berritzea baino garrantzitsuagoa da. Azken finean ez dugu saihsbiderik eta, tren geltokia, berriz, hor dago.

Xabier Vadillo. 19 urte

Leire Elustondo eta Izara Rivas

akerlei
HEZIKETA-ZENTROA



Bizkaia etorbidea 5
48260 - Ermua
943 17 66 32
akerlei@akerlei.com

Aurrematrikula zabalik:
INGELES
FRANTSESA
ALEMANA

LHko eta DBHko
LAGUNTZA ESKOLAK
Animatu eta deitu!!

ARTARRAI
OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

UDAKO ZINEA

Abuztuaren 1ean:
'Un lugar para soñar'

Abuztuaren 6an:
'Infierno blanco'

Abuztuaren 8an:
'Cazarrecompensas'

Abuztuaren 13an:
'Capitán América:
El primer vengador'

Abuztuaren 20an:
'La guerra de los
botones'

Abuztuaren 22an:
'En fuera de juego'

Abuztuaren 27an:
'Transformers 3'

Abuztuaren 29an:
'Profesor Lazhar'
Emanaldi guztiak
22.00etan hasiko dira,
Orbe Kardinalaren
plazan
(Euria badago,
elizako arkupetan).

Patxi López

ANDRA MARI JAIKEX MALLABIA

Abuztuaren 12an,
domenie
12.00: Euskal Herriko
nesken gomazko paleta
zirkuituko finalurrekuek,
Mallabia I Kirol Etxien

Abuztuaren 14an,
martitzena,
UMIEN egune
12.00-14.00 eta
16.00-18.00:
Umientzat parke
berezia: puzgarririk,
juning... parkien.
18.00: Bits festa
parkien.
19.00: Txupinazue
(AEK-ko ikasliek botako
dabe).
19.30: Txokolatadie
plazan (Antolatzailea
Izar Gorri Elkarte).

19.45-21.00:
Mandoile taldea plazan.
21.00: pilota partiduek:

1) Euskal Herriko
nesken gomazko paleta
zirkuituko finalak

2) Gorka-Cecilio /
Mendizabal III-Larrinaga

50 urte frontoia
inauguratu zela eta
omenaldia egingo zaie
Garitaonandia,
Astarloa,
Mendieta eta
Berasaluzeri.

3) Xala-Merino II /
Irujo-Laskurain
Aldaketak egon daitezke
azken orduan

Abuztuaren 15ean,
eguztana,
ANDRA MARI egune
11.00 Meza Nagusixe.
Ondoren Mallabiko
Gazte Alai dantza taldie
eta bertsolarixek:
Beñat Ugartetxea eta
Amets Arzallus.
17.30: Mallabiko
XXII. Harri-jasotze sarixe.
Harri Txixixe.
17.30: Tute, mus eta
briska txapelketie
tabernetan.
23.00etan:
Mikel Markez eta
Erramun Martikorena
parkien.

Abuztuaren 16an,
eguna,
SAN ROKE egune,
NAGUSI eta
KOADRILEN egune
11.00: XIII. Paella eta
I Marmitako lehiaketara-
ko izen emotie.
12.00: Meza
Nagusixe.
14.00: Jubilatuen
bazkarixe probalekuen.
Bazkal ostien Mallabiko
trikitilarixek, Mañukorta
eta Beñat Ugartetxea
bertsolariak egongo
dira.
17.30ean: taldien
arteko jolasak.
20.00-01.00:
Mallabitar guztientzat
txarri errie eta sagardue
plazan.
Ondoren MP5 taldie.

Abuztuaren 24tik 27ra
XXIV. Idi proba
Txapelketie.

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*De-apaindegi bat
baino gehiago!!*

 Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

**MIGUEL
Harategia**



**TXORIZOAK
ODOLOSTEAK**

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

Quetzal

[arropa, bitxiak, opariak...]

berria!!
ekainetik aurrera
Eibarren ere

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua • 943 170305

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36 / ermua@hotmail.es

- Er muko
- Merkatarien
- Elkarteko
- kidea.
- 3 hilean
- ordaindu
- interes barik

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 hortz klinika

Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Implanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
 www.irale.com

Yoga eskola

Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa

Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea

Sanatana Dharma

San Roke 24, behea
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia) - 639 652729 (Lourdes)

san pelayo
 clínica dental hortz klinika

Inplanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hortz -zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz García Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

fioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber

Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89

Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

NATURA

Cristina García Pérez

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Belar-denda eta dietetika

Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

**Osasun gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 17 93 50
 edo 688 63 28 76 telefonora**

Santixau jai egunetan Euskal Birusak **TXIKURIXA** zabalduko du aurreko urteetako leku berean. Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide eta herritar guztioi laguntzeko aukera eman nahi dizuegu:

- Txandak eginez
- Patata-tortilak ekarriz...
- Zuen koadrilako 'erronda'n kontuan hartuz...

Santixauetan
EUSKARA
MINGAINEAN

Lagundu nahi baduzu, deitu 688632874 telefonora



Euskal Birusa Elkartea

**SOR DEZAGUN
ERMUAN JAI-GIRO
EUSKALDUNA!!**

*Euskal Biruseko kamisetak
Txikurixan salgai!!*



Helduentzat: 12€



Umeentzat: 10€